

## » KONTZERTUA

# Erritmoa eta emozioa



Montserrat Auzmendi del Solar

Orokorrean, atentzio handiena deitzen didana opera batean alderdi musikala da, dudarik gabe. Baina ez zaigu ahaztu behar (ez zait ahaztu behar, hobeto esanda), opera “espektakulu osoa” kontsideratzen dela, hau da, antzerkia, musika, fantasia... Honekin guztiarekin koktelera batetik ateratako ikuskizuna dela opera. Horrexegatik, abeslari onak aurkitzen ditugunean, orkestra doi batekin, zuzendari adimentsu baten zuzendaritzapean, eta horrez gain eszena zuzendaritza aparta disfrutatzen dugunean, orduan beste dimentsio batean aurkitzen gara.

Hauxe izan zen aldi honetan topatu genuena Euskalduna Jauregian. OLBEren denboraldi honetako hirugarren titulua dugu Masseneten *Manon* opera, eta benetako gutizia suertatu zen. Arrazoi garrantzitsuenak: Arnaud Bernard eszena zuzendariak eta Alessandro Camera eszenografoak emandako ikuspegi arina baina ez azalekoa, abeslariak ezin hobeki zuzenduz eta eszenatokiko baliabide sinple eta aldi berean originalak erabiliz. Batzuetan musikak eta letrak adierazi nahi duten sakontasun eta emozioa ez dira behar bezala iristen ikus-baliabide egokiak erabiltzen ez badira. *Manon* honetan sentitu genuen pertsonaien bakardadea jendearen artean, protagonisten kontraesanak, bakoitzaren ilusioak eta desilusioak, pentsamenduak... Eta ez musikaren bidez bakarrik, baizik eta eszenatokian azaltzen ziren gune

## Jules Masseneten 'Manon' opera

VERUM ORKESTRA  
SINFONIKOA

Zuzendaria: Alain Guingal.

Bilboko Operaren

Abesbatzaren zuzendaria:

Boris Dujin.

Eszena zuzendaria:

Arnaud Bernard.

Eszenografia:

Alessandro Camera.

Koreografia: Gianni Santucci.

Bakarlariak: Irina Lungu,  
Michael Fabiano, Manel Esteve,

Roberto Tagliavini, Francisco  
Vas eta Fernando Latorre.

Euskalduna Jauregia.

Urtarrilaren 20a.



isolatuen bidez ere bai, eta batez ere pertsonaien interpretazio nolabait espresionistei esker.

Halere, kontuz!, ez dezagun pentsatu alderdi musikala makala izan zela, ezta pentsatu ere. Bakarlari guztiak primeran aritu ziren, eta baten batek txunditu egin zituen entzuleak. Michael Fabiano tenore estatubatuarrak Chevalier des Grieux zoragarria egin zuen. Ahots garbia azaldu zuen, ausardiaz abestu zuen uneoro, bere onena emanez, eta pasarte hunkigarriak oparitu zituen *Je suis seul* edo *Ah, fuyez douce image* arietan bezala.

Irina Lungu soprano moldaviarrak ere *Manon* ederra eskaini zuen, samurra, zalantzak zituena. Aria distiratsuak abestu zituen. *Adieu, notre petite table* edo bigarren ekitaldian Des Grieux-ekin egindako duoa azpimarratuko nituzke. Aktuazio ona egin zuen baita ere Roberto Tagliavini baxuak, taxuzko Comte des

Grieux eginez.

Verum Orkestra Sinfonikoari buruz, eta batez ere Alain Guingal zuzendariari buruz gauza onak besterik ezin dira esan. Ederki azpimarratu zituzten ahotsak, dotoreki, bolumen justuak eginez. Eta Bilboko Operaren Abesbatza, Boris Dujin-en zuzendaritzapean, ongi aritu zen, doitasunez. Txalokada izugarriak jaso zituzten. Merezita. ■

OLBEk antolatutako Jules Masseneten  
'Manon' operaren pasarte.